

# HAU EZ DA BOTILA BAT

PLAZARATZEN 2014//12 PORTUGALETEKO ALDE ZAHARRA

Hau ez da pipa bat, zion Magritek eta gauza bakoitzak bere ikuspuntua zehaztu behar zuela, argi utzi ziguten jakintsuek.

Berez badena,  
askotan ez da dirudiena,  
eta izan zitekeena  
nekez iristen da izan behar zuenera;  
ezta izan behar zuena ere,  
ez da betiere uste genuen bezalakoxea.

Eta hau ere ez baldin bada botila bat,  
zer da, uste duzuen?

Artistak zion, ez dago erantzunik nire margolanetan, galderak baizik Baina hau ez da botila bat, ezta loreontzi bat, eta ez digu galderarik sorrarazi nahi, erantzun bat besterik ez da, ez du haratago joan nahi. Hirigintza kontrolatzen duen botere sistematikoaren kontrako erantzuna Hazkunde basatiaren eta hirigintza kapitalistaren kontrako erantzuna.

